

## **EUSKADI 0 – KAMERUN 1**

Bilbo (2005.12.29)

Atzo San Mames futbol zelaian ikusitakoa Euskal Herrian bizi dugun egoeraren argazki ezin hobe iruditu zitzaidan eta berau deskribatzeko adibide ezin hobe da.

Euskal Herriko futbolari hoberenak “Euskadiren” izenean eAjEta blokeak urtero antolatzen duen lagunarteko partida jokatu zuen Afrikako Kamerun Estatuko selekzioaren aurka. Hotz itzela zen eta euria ari zuen baina Euskal zalegoz josi zen San Mames “Euskadi” animatzeko irrikaz. Herria partida ikusgarri batetarako giroa prestatzen ari zen kantu eta suzirikin. “Euskadiren ereserkia” txalotu zen eta partido ikusgarri bat ikusteko gosea nabarmena zen. Baina jaia berehala hotzitu zen “Euskadik” bere atean gol egin eta partida galdu zuelarik. Jendea burumakur eta hotzetan etxera bueltatu zen.

Lehenik argi erakusten du inperialismoaren agente trabestitu, renegatu eta eskizofrenikoek duten engainurako gaitasuna, errekuaturik dauden sinboloak herriaren ikur egiteko eta hauen inguruan herria mugitzeko trebesia. Bigarrenez inperialismoak gure herrian sorturiko kaka naste ideologikoan askatu beharreko beste korapilo bat ezartzen dute, are gehiago zailduz herri honetako askatasunaren bidean lagunak eta arerioak nortzuk diren ezberdintzen jakitea. Heriotzak ez du esfortzu ideologikorik eskatzen, hiltzeko obeditzearekin nahikoa da.

Beste aldetik beraien ahultasuna erakusten dute, eAjEta blokeak herriari eskaini diezaiokeen guztia lagunarteko partiduetara mugatzen dela erakutsi dute, ez daukate beste ezer eskaintzeko ahalmenik kirol zein beste edozein arlotan. Indar erlazio politikoari muzin egiten diotenez ezin dituzte begiak haratago ipini, alderantziz herriaren helburuak gero eta murrizagoak izatera heldu dira, presoak, amnistia,... Inperialismoaren agente izatea erabaki dute eta obeditzea dute helburu, hau da gehien maite dutena, ez dute inperialismoaren saretik at lorpenik, bizitzarik ikusten.

Euskal Herria bloke inperialistaren traiziora makurtzen da eta horrelako ekitaldietara doan bezala bozkatzera deitua denean ere etsitzen du. Herriak Euskal Estatu Ofizialaren partiduak ikusi nahi balitu hobe luke horrelako partiduetara joango ez balitz baina askoz hobe bozkatzera deitua denean kasu egingo ez balu, kolaboratsetik indar erlazioan kokatzera pasatuko lirakeelako bere ekintzak.

Herriaren indarra handia da, berak uste baino askoz handiagoa, espainian existitzen den edozein ejerzitoren indarra baino bortitzagoa hain zuzen eta nahiz eta eAjEta bloke inperialistak herriaren indar hau parlamentuan edota atentatu bidez ordezkatu eta indargabetu nahi izan, herriak berak du askatasunera eramango duen haina indar zentrifugo, hori bai indar hau egoki erabiltzen jakin behar dugu.

Inperialismoa, agente inperialistak (eA) eta blokea) eta Euskal herria dira egun inperialismoak ezarritako plano politikoan dauden agente politiko bakarrak. Euskal Herriak plano honetatik atera beharra dauka garaipen politikorik lortu nahi badu, objektu politiko izatetik subjektu politiko izatera pasatu behar du, honetarako derrigorrezkoa delarik biolentzia politikoa trebeki erabiltzen jakin eta erabiltzea.

Euskal Herriak heriotzara daraman kolaborazionismoari uko egin eta Nafarroako Estatuaren indartze eta kontrolaren aldeko borrokan kokatu behar ditu bere indar guztiak. Gure hizkuntza, ekonomia eta demokraziaren garapena gure Estatuaren biolentzia legitimoarekin bakarrik bermatu ditzakegularik, bizi garen munduan estatuak bakarrik existitzen direlako.

Herriaren indarra plano politikoan kokatu ezean eta gure indarrak huskerietan galtzen baditugu, bihar "Euskadiren" lagunarteko partidurik ere ezin izango dugu ikusi. Ez dezagun gure atean gol gehiagorik sartu.

**GORA EUSKAL HERRIA, GORA NAFAR ESTATUA.**